

[Eusk/Cast] JARDUN koordinadorak Aberri eguna ospatu du Gernikan

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 09/04/2023

Ukazioaren aurrean Euskal Herriak askatasuna

[Euskera]

JARDUN koordinadoraosatzen duten eragile desberdinek apirilaren 9rako manifestazioa deitua zeukaten Gernikan, aurtengo Aberri Eguna ospatzeko. Eta beste behin ere, Bizkaiko udalerrira gerturatutakoek independentzia eta sozialismoaren aldarria ozen eta irmo entzunarazi dute.

Hala ere, goizean, ASKE antolakundeak salatu du Nafarroatik zetorren autobusa birritan gelditu dutela, eta bertan zeudenak identifikatu. Honek ez du eragotzi, ordea, autobusa Gernikara manifestazioaren ordurako heltzea eta adarraren doinuarekin batera manifestazioari hasiera ematea. Hori horrela, bi errenkadetan kokatuta zeuden hogei joaldunen gidaritzapean eta ikurrinez eta bandera gorritz lagunduta, herri osoa zeharkatu du manifestaldiak.

Inongo ezuste edo arazorik gertatu barik, manifestazioa Pasealeku plazara heldu da. Bertan, ekitaldi politikoari eman zaio bide eta plazan bildutakoek **Alderdi Komunista Txiletarraren (Ekintza Proletarioa)** elkartasun mezua entzuteko aukera izan dute. Mezu horretan, borroka iraultzaileak erreformismoaren aurrea duen garrantzia azpimarratu da eta, horrez gain, gogora ekarri nahi izan dituzte orain dela 70 urte Txilera erbesteratu ziren euskaldunak. Ostean, bertso batekin jarraitu du ekitaldiak. Azkenik, JARDUNeko bozeramaileak koordinadoraren **diskurtsoa** zabaltzeko eta, gaurkoan ere, Euskal Herri Langilearen alternatiba bakarra independentzia eta sozialismoa direla gogorarazteko aukera izan du.

Ekitaldia bukaera emateko, "Internazionala" eta "Eusko Gudariak" abestu dira.

[Castellano]

Los diferentes agentes que conforman la coordinadora JARDUN han convocado una manifestación para el 9 de abril en Gernika para celebrar el Aberri Eguna de este año. Y una vez más, los asistentes al municipio vizcaíno han proclamado alto y claro la necesidad de la independencia y socialismo.

Sin embargo, por la mañana, la organización ASKE ha denunciado que el autobús procedente de Navarra ha sido obligado a detener la circulación en dos ocasiones e identificado a sus ocupantes. Esto no ha impedido, sin embargo, que el autobús llegue a Gernika para la hora de la manifestación e inicie la misma con el sonido del cuerno. La manifestación ha recorrido toda la localidad bajo la batuta de una veintena de zantantzarrak situados en dos filas y acompañados de ikurriñas y banderas rojas.

Sin ningún contratiempo o problema, la manifestación ha llegado a Pasealeku plaza. Allí se ha dado paso al acto político y los congregados en la plaza han podido escuchar el mensaje de solidaridad del Partido Comunista Chileno (Acción Proletaria). En este mensaje se ha subrayado la importancia de la lucha revolucionaria como anticipo al reformismo y se ha recordado a los vascos exiliados en Chile hace 70 años. A continuación, el acto ha continuado con un bertso. Por último, el portavoz de JARDUN ha tenido la oportunidad de ampliar el discurso de la coordinadora y ha recordado que la única alternativa para El Pueblo Trabajador Vasco es la independencia y el socialismo.

El acto ha finalizado cantando la Internacional y el Eusko Gudariak.

<https://eh.lahaine.org/jardun-koordinadora-aberri-eguna-ospatu>